

Iñaki Alberdi Iparragirre, Idiazabalgo udaleko alkateburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera

IKUSIRIK

Deialdi hau egokitzen zaio Diru laguntzen Plan Estrategikoari-Gizarte ekintza 07/2025 lerroa-2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.

Diru-laguntzen 2025eko Plan Estrategikoak tokiko merkataritza sustatzeko diru-laguntza lerro hau jasotzen du, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 1. 25 artikulua xedatutakoaren arabera, udal eskumen propioa da «tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak»

Diru-laguntza horren oinarrien behin betiko onarpenaren iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko azaroaren 8an (216. zenbakian).

AINTZAT HARTURIK

Eskumena. Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorraren 10. artikulua honakoa dio:

“Deialdia onartuko du Alkate-udalburuak eta han bertan sartuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da. Eskaerak aurkezteko epea eta modua deialdian zehaztuko dira”.

Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Diru laguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorra. (GAO::2017/04/25ean argitaratua, 78. zkia).
- Diru laguntzen Plan Estrategikoa -07/2025 lerroa-, 2024ko azaroaren 28an Osoko Bilkuran onartua.
- Diru laguntzaren oinarriak (Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 24ko bileran onartutakoak).

Publizitatea

a) Diru laguntzak eman baino lehen, haiek erregulatzeko dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua hauxe dio: “... diru laguntzak erregulatzeko dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutzeko oinarrien markoan, Diru laguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo diru laguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez”.

b) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra.18 atalak zera dio: “*La publicidad de las subvenciones concedidas por Entidades Locales de menos de 50.000 habitantes podrá realizarse*

en el tablón de anuncios. Además, cuando se trate de Entidades Locales de más de 5.000 habitantes, en el Diario Oficial correspondiente se publicará un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación, indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro".

Hau guztia kontuan harturik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Herriko merkataritza sustatzeko bonu kanpainaren barruko diru laguntzak emateko 2025eko deialdia onartzea.

Bigarrena. 15.000 euroko gastua onartzea 1 481.02.430.00 2025 aurrekontu aplikazioari egotzia.

Hirugarrena. Deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena. Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua xedatutakoari jarraituz.

Bosgarrena. Kontabilitate-unitateari horren berri ematea.

Nire aurrean,

ALKATE-UDALBURUAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAK

Pablo Echart San Sebastian

